

ARIKETA PRAKTIKOA

KASUA

Eraikuntzako Materialak S.A. enpresak (Tolosa, Gipuzkoa), bere egoera ekonomikoa larria dela eta, Etxegintza S.L enpresari (Martutene, Donostia) saldutako material-sorta lehenbailehen kobratu nahi du. Horretarako, hari aurtengo urtarrilaren 12an igorritako ganbio-letra, bi hilabeteko epemuga duena, Kutxabank erakundearen deskontatzen saiatu da.

Bankuak badaki Eraikuntzako Materialak, S.A enpresak zailtasun ekonomikoak dituela. Horregatik, zorraren ordainketa bermatzeko, gerentea den Intxausti jaunari eskatu dio harreman ganbiarioan sar dadin, ordezkatzeko duen sozietatea abalatuaz, bera kaudimenduna da eta.

Egoera hau izanik eta bere interesak ahalik eta hobekien babestearren, Intxausti jaunak Donostiako Etxegintza S.L enpresari eskatu dio, batetik, ganbio-letra onartzea eta, bestetik, bere bazkidetariko batek, konkretuki oso egoera ekonomiko saneatua duen Martinez jaunak, abal eman dezala.

Ganbio-letra ordainketarako aurkeztu, ordainketa ukatu eta protesta altxa ondoren, bankuak Intxausti jaunari eskatu dio ordainketa. Honek hala egin du eta ganbio-letra itzuli egin zaiou.

GALDERAK

Erantzunak

1. Ganbio-letra zuzen bete arren, oharkabearen, abalatuak subjektua adierazi izan ez balitz, nor hartuko litzateke abalatuak?

LCCh 36.III. artikulua araberaren arabera abalean abalatu identifikatu beharko da eta honen ezean, abalatu bezala onartzailea hartuko da, eta hau ere agertuko ez balitz, igortzailea.

2. Intxausti jaunak, aurretiaz inongo abalik eskatu ez arren, ordainketa eza ikusirik eta bere ondorio arriskutsuaz jabeturik, eska al dezake orduan abal bat egitea? Abal hori baliozkoa izango al litzateke?

LCCh 35.III. artikulua jarraikiz, Intxausti jaunak abala eska dezake ordainketa eza ikusirik eta bere ondorio arriskutsuaz jabeturik, eta guztiz baliozkoa izango da. Artikuluan bertan muga bat dago ordainketa hori eskatzerakoan, alegia, abala ematerako unean abalatu obligazio ganbiariorik at ez geratzea.

3. Edozein kasutan, abalemaileak ordainketa bermatzeko hartu duen obligazioari jar al diezaioke denborazko mugapenik?

Galdera hau erantzuteko, kontutan izan behar dugu legeak ez duela ezer esaten abal emailearen denborazko mugapenari buruz. Denborazko mugapenaren inguruko informazioa jurisprudentzian aurkitu behar da.

Jurisprudentiaren arabera ulertu behar dugu ez dagoela inongo eragozpenik abalari denborazko mugak ezartzeko, izan ere, inon ez da jasotzen hau egin ez daitekeenik eta gainera ordena publikoarekin guztiz bateragarria da.

4. Kontuan izanik, Intxausti jaunak, pertsonalki, Etxegintza S.L enpresarekin, harreman komertzialak dituela eta, honi, ganbio-letran jasotako kopuru berbera zor diola, akzio ganbiarioa noren kontra jartzea komeni zaio gehien? Arrazoitu erantzuna eta idatzi haren aurkako demanda.

Intxausti jaunari bere abalaturia den Eraikuntza Materialak S.A eta Martinez jauna demandatzea komeni zaio, izan ere, Etxegintza S.L demandatuz gero honek salbuespen bat dauka bere aurka eta dirua berreskuratzea galeraziko lioke.

Hori dela eta, Martinez jauna eta Eraikuntza Materialak S.A demandatzea komeni zaio Intxausti jaunari.

EGITEKOAK

- 1. Bete ezazu ganbio-letra kasuko datuen arabera.**
- 2. Emandako erantzunaren arabera, idatzi judizio ganbiarioan jarriko zenuken demanda.**
- 3. Planteatu diren arazoaren inguruko bi epai bilatu eta komentatu.**